1.- Enpresak edo enpresen jarduera-adarrak batzen, zatitzen, jartzen edo eskualdatzen direnean, kontratuak jarraitu egingo du kontratua esleitu zaion erakundearekin. Hala, erakunde hori subrogatu egingo dakontratuari darizkion eskubide eta obligazioetan, betiere SPKLren 98. artikuluan eskatzen diren baldintzak betetzen badira. Kontratista aldi baterako enpresa-elkartea bada, SPKLren 69.8 artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.

2.- Kontratistaren betebeharra da administrazioari era frogagarrian jakinaraztea nortasun juridikoari eragiten

36.- Sucesión en la persona de la contratista

1.- En los casos de fusión, escisión, aportación o transmisión de empresas o ramas de actividad de las mismas continuará el contrato con la entidad a la que se atribuye el contrato, que quedará subrogada en los derechos y obligaciones dimanantes del mismo, si se cumplen las condiciones exigidas en el artículo 98 de la LCSP. Cuando el contratista sea una unión temporal de empresas se estará a lo establecido en el artículo 69.8 de la LCSP.

2.- La contratista deberá comunicar fehacientemente a la Administración cualquier cambio que afecte a su

ESKUca853639-4f2e-4a79-96ca-ea0cc4834a1b

dion aldaketa oro. Horrelakoetan, eten egingo da kasuan kasuko fakturak ordaintzeko legez aurreikusten diren epeen kontaketa, harik eta aldaketak egiaztatzen diren arte.

3.- Subrogazioa ezinezkoa bada kontratua eskuratuko duen entitateak beharrezkoak diren kaudimen eta gaitasun baldintzak betetzen ez dituelako, kontratua suntsiarazi egingo da, eta esleipendunaren erruz suntsiarazi dela joko da, ondorio guztietarako.

37.- Kontratua lagatzea

1.- Kontratutik eratorritako eskubideak eta betebeharrak hirugarren bati laga ahal izango dizkio pertsona edo enpresa esleipendunak, betiere lagatzailearen ezaugarri teknikoak edo pertsonalak kontratua esleitzeko arrazoi erabakigarria izan ez badira eta lagapenak merkatuko lehiaren egiazko murrizketa eragiten ez badu.

2.- Kontratistak bere eskubide eta betebeharrak hirugarren bati laga ahal izan diezazkion, baldintza hauek bete beharko dira:
- Kontratazio-organoak lagapena egiteko baimena berariaz eta aurretik ematea.
- Lagatzaileak kontratuaren zenbatekoaren gutxienez % 20 betea izatea.
- Enpresa lagapen-hartzaileak kontratuak egiteko gaitasuna eta kontratuaren betetze fasearen arabera eska daitekeen kaudimena izatea. Gainera, behar bezala sailkatuta egon behar du, baldin eta lagatzaileari ere baldintza hori ezarri bazaio, eta enpresa-lagapen hartzaileak ez du izan behar kontratatatzeko debekurik.
- Enpresa esleipendunaren eta enpresa lagapen-hartzailearen arteko lagapena eskritura publiko bitartez formalizatzea.

3.- Lagapen-hartzailea lagatzaileari dagozkion eskubide eta betebehar guztietan subrogatuko da.

38.- Esleipen baldintzak eta betebeharrak

38.1.- Enpresa kontratistaren betebehar orokorrak

1.- Onartutako proiektua eta pleguak, oro har aplikatu beharreko araudia eta kontratatutako lanen izaerari dagozkion arau teknikoak hertsiki betez egin beharko dira obrak, eta interpretazio teknikoa eginez obraren zuzendaritzak enpresa kontratistari ematen dizkion jarraibideen arabera. Jarraibide horiek hitzezkoak direnean, idatziz berretsi beharko dira ahalik eta eperik laburrenean, alderdientzat lotesleak izan daitezen.

2.- Kontratua enpresa kontratistaren kontura gauzatuko da, SPKLren 197. eta 239. artikuluetan ezarritakoari kalterik egin gabe.

personalidad jurídica, suspendiéndose el cómputo de los plazos legalmente previstos para el abono de las facturas correspondientes hasta que se verifiquen los mismos.

3.- Si no pudiese producirse la subrogación por no reunir la entidad a la que se atribuya el contrato las condiciones de solvencia necesarias, se resolverá el contrato considerándose a todos los efectos como un supuesto de resolución por culpa de la adjudicataria.

37.- Cesión del contrato

1.- Los derechos y obligaciones dimanantes del contrato podrán ser cedidos por la persona o empresa adjudicataria a una tercera persona siempre que sus cualidades técnicas o personales no hayan sido razón determinante de la adjudicación del contrato y de la cesión no resulte una restricción efectiva de la competencia en el mercado.

2.- Para que la contratista pueda ceder sus derechos y obligaciones a terceras personas deberán cumplirse los siguientes requisitos:
- Que el órgano de contratación autorice expresamente y con carácter previo la cesión.
- Que la cedente tenga ejecutado al menos un 20 por 100 del importe del contrato.
- Que la empresa cesionaria tenga capacidad para contratar y la solvencia que resulte exigible en función de la fase de ejecución del contrato, debiendo estar debidamente clasificada si tal requisito ha sido exigido a la cedente, y no estar incursa en una causa de prohibición de contratar.
- Que la cesión se formalice, entre la empresa adjudicataria y la empresa cesionaria, en escritura pública.

3.- La cesionaria quedará subrogada en todos los derechos y obligaciones que corresponderían a la cedente.

38.- Condiciones y obligaciones de la adjudicación

38.1.- Obligaciones generales de la empresa contratista

1.- Las obras deberán ejecutarse con estricta sujeción al Proyecto y pliegos aprobados, a la normativa de general aplicación y, en todo caso, a las reglas técnicas propias de la naturaleza de los trabajos contratados, y conforme a las instrucciones, que en interpretación técnica de ésta diere a la empresa contratista la Dirección de la obra. Cuando dichas instrucciones fueren de carácter verbal, deberán ser ratificadas por escrito en el más breve plazo posible, para que sean vinculantes para las partes.

2.- La ejecución del contrato se realizará a riesgo y ventura de la empresa contratista, sin perjuicio de lo

ESKUca853639-4f2e-4a79-96ca-ea0cc4834a1b

3.- Enpresa kontratista izango da proiektuan aurreikusitako konponbideak modu egokian garatu eta gauzatzeko arduraduna, obrak behar bezala amaitu arte.

4.- Obrak egiten diren bitartean eta berme-epea bete arte, enpresa kontratista da eraikuntzan antzeman daitezkeen akatsen erantzulea.

5.- Administrazioak izendatutako zuzendaritza fakultatiboaren iritziz obrako zatiren bat akatsekin gauzatu balitz, enpresa kontratistak berregin egin beharko du obra-zati hori inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izan gabe, nahiz eta akatsak harreraren ondotik antzeman. Zuzendaritzak uste badu obra-unitate akastunak edo kontratuaren baldintzak zorrotz betetzen ez dituztenak onargarriak direla, administrazioari proposa diezaioke horiek onartzea, eta, ondorioz, prezioak jaistea. Kasu horretan, enpresa kontratistak Administrazioak ezarritako prezio beheratuak onartu beharko ditu, salbu eta bere kontura eta kontratuaren baldintzen arabera unitate akastunak eraistea eta berreraikitzea nahiago badu.

6.- Enpresa kontratistak aseguru-kontratu bat izan beharko du, kontratua gauzatzen den bitartean (luzapenak barne) eta dagokion berme-epea (luzapenak barne), hirugarrenei eragindako kalteen erantzukizuna estaltzeko, bai eta obrari eragindako kalteena ere. Kontratu horrek baldintza-agiri honetako 47. eta 48. klausuletan aipatzen diren gutxieneko estaldurak izan beharko ditu, eta berariaz adierazi beharko ditu, besteak beste, aseguratutako pertsonak, bermatutako gutxieneko estaldurak eta zenbatekoak, bai eta epea ere, eta plegu honetako karatulan ezartzen diren zenbateko aseguratuak. Hori guztia egiaztatu beharko du gehienez hilabeteko epean, kontratua sinatzen denetik zenbatzen hasita. Horretarako, primak ordaindu izanaren jatorrizko poliza eta ordainagiriak aurkeztu beharko ditu, bai eta erakunde aseguratzailearen ziurtagiriak ere. Atal honetan adierazitako baldintzaren bat ez egiaztatzea kontratua suntsiarazteko arrazoia izango da, betebehar hori funtsezko kontratu-betebeharra baita, SPKLren 211.1 f) artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Nolanahi ere, enpresa esleipendunak bere gain hartuko ditu kalte-galerak, dagozkien frankizien zenbatekoan eta aseguru-polizetan ezartzen diren mugak gainditzen dituzten alderdietan, bai eta poliza horietan estaltzen ez diren ondasun eta arriskuetan ere.

Lizitazioan parte hartzen duten enpresek beren borondatez onartzen dute gardentasun instituzionala ematea lizitazio-, esleipen- eta egikaritze-prozesuetatik

establecido en los artículos 197 y 239 de la LCSP.

3.- La empresa contratista será responsable del correcto desarrollo y ejecución de las soluciones previstas en el Proyecto hasta la terminación satisfactoria de las obras.

4.- Durante el desarrollo de las obras y hasta que se cumpla el plazo de garantía, la empresa contratista es responsable de los defectos que en la construcción puedan advertirse.

5.- Si a juicio de la facultativa Dirección designada por la Administración, hubiera alguna parte de la obra ejecutada deficientemente, la empresa contratista deberá rehacerla sin derecho a indemnización de ningún género, aunque se hubiera apreciado después de la recepción.

Si la dirección estima que las unidades de obra defectuosas o que no cumplen estrictamente las condiciones del contrato son, sin embargo, admisibles, puede proponer a la administración su aceptación, con la consiguiente rebaja en los precios. La empresa contratista, en tal caso, queda obligada a aceptar los precios rebajados fijados por la Administración, salvo que prefiera demoler y reconstruir las unidades defectuosas por su cuenta y con arreglo a las condiciones del contrato.

6.- La empresa contratista deberá disponer, durante el periodo total de duración de la ejecución del contrato (prórrogas incluidas) y del correspondiente plazo de garantía (ampliaciones incluidas), de un contrato de seguro que cubra su responsabilidad por daños a terceras partes así como el correspondiente de daños a la obra, con las coberturas mínimas a que se hace referencia en las cláusulas 47 y 48 de este pliego, con indicación expresa, entre otros aspectos, de las personas aseguradas, coberturas mínimas e importes garantizados, así como del plazo, y por las sumas aseguradas que se establecen en la carátula del presente pliego, lo que deberá acreditar en el plazo máximo de un mes contado desde la firma del contrato, mediante la presentación bien de la póliza original y de los recibos acreditativos del pago de la primas correspondientes, bien de los orrespondientes certificados de la entidad aseguradora. La falta de acreditación de cualquiera de los requisitos señalados en este apartado será causa de resolución del contrato, dado el carácter de obligación contractual esencial que tiene esta obligación, a tenor de lo previsto en el Art. 211.1 f) de la LCSP.

En todo caso serán soportados por la empresa adjudicataria los daños y perjuicios en la cuantía de la/s correspondientes franquicia/s y en lo que superen los límites que se establezcan en las distintas pólizas de seguro; así como en los bienes y riesgos no cubiertos en las mismas.

Las empresas que concurran a la licitación aceptan voluntariamente dar transparencia institucional a todos

ESKUca853639-4f2e-4a79-96ca-ea0cc4834a1b

eratorritako datu guztiei, kontratua amaitu arte.

los datos derivados de los procesos de licitación, adjudicación y ejecución hasta su finalización.

38.2.- Kontratua gauzatzeko baldintza bereziak

1.- Kontratua gauzatzeko baldintza berezi guztiak kontratua gauzatzen parte hartzen duten azpikontratista guztiei ere eskatuko zaizkie.

2.- Karatulako **19. ataletan** aurreikusitakoez gain, gauzatzeko betebehar bereziak dira ondoren zehazten direnak:

38.2.- Condiciones especiales de ejecución del contrato

1.- Todas las condiciones especiales de ejecución que formen parte del contrato serán exigidas igualmente a todos los subcontratistas que participen de la ejecución del mismo.

2.- Además de las previstas, en su caso, en el **apartado 19** de la carátula son obligaciones especiales de ejecución las que se detallan a continuación:

38.2.1.- Enpresa kontratistak lan, Gizarte Segurantza eta laneko segurtasun eta osasun arloan dituen betebeharrak.

1.- Kontratistak lan, Gizarte Segurantza eta laneko segurtasun nahiz eta osasun arloko lege, araudi eta hitzarmen xedapen guztiak bete beharko ditu.
Bereziki, Eraikuntzako eta Obra Publikoetako Gipuzkoako Hitzarmen Kolektiboko lan-baldintzak aplikatu beharko ditu, indarrean dauden eta bertan xedatutakoa hobetzen duten beste enpresa-hitzarmen edo -itun batzuei kalterik egin gabe, eta bere erantzukizun esklusiboa izango da lan-istripuei buruzko guztia. Zehazki, bere kargura eta arreta osoz gauzatu beharko du Segurtasun eta Osasun Plana, eraikitze-obretarako gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenak ezartzen dituen urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera idatzi eta onartua, agiri honetan xedatutakoaren arabera. Enpresa kontratistaren ez betetzeak ez du inolako erantzukizunik ekarriko erakunde kontratatzailearentzat.

2.- Era berean, enpresa kontratistak, azpikontratatutako enpresei datu egokiak eskatu ondoren, egiaztatu beharko du enpresa horiek ere, obrak egitean, aplikatzen dituztela lan-arloan eta gizarte-segurantzan indarrean dauden xedapenak, eta, zehazkiago, Gipuzkoako Eraikuntza eta Herri Lanetako Hitzarmen Kolektiboko lan-baldintzak, hargatik eragotzi gabe indarrean zeuden eta bertan xedatutakoa hobetzen duten enpresa-hitzarmen edo -itunak, bai eta laneko segurtasun eta osasunaren arloko betebeharrak ere.

3.- Enpresa kontratistak, kontratua gauzatzen duen bitartean, langileari dagokion lanbide-kategoriaren arabera aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboan jasotako soldata ordaindu beharko du, eta ordaindu beharreko soldata ezin izango da inola ere hura baino txikiagoa izan.

38.2.1.- Obligaciones sociales de la empresa contratista en materia laboral, de seguridad social y de seguridad y salud en el trabajo

1.- La empresa contratista deberá cumplir todas las disposiciones legales, reglamentarias y convencionales vigentes en materia laboral, seguridad social, y seguridad y salud en el trabajo.

En particular, deberá aplicar las condiciones de trabajo del Convenio Colectivo de la Construcción y Obras Públicas de Gipuzkoa, sin perjuicio de otros convenios o pactos de empresa que estuvieran en vigor y mejoren lo dispuesto en aquel, siendo de su exclusiva responsabilidad todo lo referente a accidentes de trabajo. En concreto, deberá ejecutar a su cargo y con toda diligencia el Plan de Seguridad y Salud, redactado y aprobado conforme a lo dispuesto en el Real Decreto 1627/1997, de 24 de octubre, por el que se establecen disposiciones mínimas de seguridad y salud en las obras de construcción, y conforme a lo dispuesto en este pliego. El incumplimiento por parte de la empresa contratista no implicará responsabilidad alguna para la entidad contratante.

2.- La empresa contratista, igualmente, deberá justificar, después de haber solicitado a las empresas subcontratadas los datos oportunos, que estas empresas también aplican en la ejecución de las obras las citadas disposiciones vigentes en materia laboral y de seguridad social, y más concretamente, las condiciones de trabajo del citado Convenio Colectivo de la Construcción y Obras Públicas de Gipuzkoa sin perjuicio de otros convenios o pactos de empresa que estuvieran en vigor y mejoren lo dispuesto en aquel, así como las obligaciones en materia de seguridad y salud laboral.

3.- La empresa contratista deberá, a lo largo de toda la ejecución del contrato, abonar el salario recogido en el convenio colectivo de aplicación según la categoría profesional que le corresponda a la persona trabajadora, sin que en ningún caso el salario a abonar pueda ser inferior a aquel.

ESKUca853639-4f2e-4a79-96ca-ea0cc4834a1b

4.- Enpresa esleipendunak kontratuko xedea den jarduera egiten duten langileei aplikatuko beharreko hitzarmen kolektiboari buruzko informazioa jasoko da esleipen ebazpenean eta kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

5.- Kontratuari atxikitako langileen lan baldintzen edozein aldaketak esleipenaren unean aplikagarria den hitzarmen kolektiboan xedatutakoei eragiten badie, aldez aurretik jakinarazi beharko zaizkio kontratazio-organoari.

6.- Enpresa kontratistak sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena saihesteko lan-baldintzak sustatu beharko ditu, eta prozedura espezifikoak ezarri beharko ditu, halakoak prebenitzeko eta jazarpena jasan dutenen salaketak edo erreklamazioak bideratzeko.

7.- Klausula honetan jasotako betebeharrek eragindako gastuak enpresa esleipendunaren kontura izango dira, eta kontratua gauzatzeko eskainitako prezioan sartuta egongo dira.

8.- Azpikontrataziorik egiten bada, klausula honetan xedatutakoa bete beharko du empresa azpikontratistak. Azpikontratatutako jarduerari hasiera eman baino lehen, enpresa kontratistak egiaztatu beharko du azpikontratatutako enpresako langile guztiak gizarte segurantzan izena eta alta emanda daudela, eta horren berri eman beharko dio kontratazio-organoari.

9.- Enpresa kontratistak klausula honetan xedatutako betebeharrak ez betetzeagatik entitate kontratatzailea zigortzen badute ez-betetze horren ondorioz sortutako ondorio ekonomikoak bere gain hartzera, ondorio horiek kontratistari jasanaraziko dizkio. Horretarako, administrazio kontratatzaileak beharrezko jarduketa administratibo edo judizialak egiteko eskubidea izango du, harik eta ordaindutako zenbateko osoa berreskuratu arte.

10.- Aurreko paragrafoetan adierazitako betebeharrak gauzatzeko baldintza bereziak dira, eta kontratua gauzatzen denean egiaztatu beharko dira. Ez betetzeak, 36.2.4 klausulan azpikontrataziorako ezarritakoa salbu, zigor ekonomikoak ezartzea ekarriko du, ez-betetzearen larritasunaren arabera. Zigor horien zenbatekoa ezingo da izan kontratuaren prezioaren 100eko 10etik gorakoa. Nolanahi ere, baldintza-agiri honen arabera oso larriak diren ez-betetzeak funtsezko kontratu-betebehartzat hartuko dira, eta horiek ez betetzeak kontratua suntsiaraztea ekar dezake.

4.- La información sobre el convenio colectivo que la empresa adjudicataria declare aplicable a los trabajadores y las trabajadoras que realicen la actividad objeto del contrato se incluirá en la resolución de adjudicación y se publicará en el perfil de contratante.

5.- Cualquier modificación en las condiciones laborales del personal adscrito, distintas a las establecidas por convenio colectivo aplicable en el momento de la adjudicación, deberá ser comunicada previamente al órgano de contratación.

6.- La empresa contratista deberá promover condiciones de trabajo que eviten el acoso sexual y el acoso por razón de sexo y arbitrar procedimientos específicos para su prevención y para dar cauce a las denuncias o reclamaciones que puedan formular quienes hayan sido objeto del mismo.

7.- Los gastos derivados del cumplimiento de las obligaciones recogidas en esta cláusula serán por cuenta de la empresa adjudicataria y estarán incluidos en el precio ofertado para la ejecución del contrato.

8.- En caso de subcontratación, la empresa subcontratista deberá igualmente cumplir con lo dispuesto en esta cláusula. La empresa contratista deberá comprobar, con carácter previo al inicio de la actividad subcontratada, la afiliación y el alta en la seguridad social de los trabajadores y las trabajadoras de las empresas con las cuales subcontrate y lo debe comunicar al órgano de contratación.

9.- Si a consecuencia del incumplimiento por la empresa contratista de las obligaciones asumidas en virtud de esta cláusula, el ayu fuera condenada a asumir las consecuencias económicas que de aquél se derivan, se repercutirán las mismas en la contratista, a cuyos efectos la el Ayuntamiento de Andoain se reserva el ejercicio de cualesquiera acciones, administrativas o judiciales, que sean adecuadas y convenientes hasta la total recuperación de las cantidades satisfechas.

10.- Las obligaciones impuestas en los párrafos anteriores se establecen como condiciones especiales de ejecución y deberán ser acreditadas en el marco de ejecución del contrato. Su incumplimiento supondrá, con la salvedad de lo establecido para la subcontratación en la cláusula 36.2.4 la imposición de penalidades económicas, proporcionales a la gravedad del incumplimiento y su cuantía no podrá ser superior al 10 por 100 del precio del contrato. En todo caso, las obligaciones cuyo incumplimiento tiene carácter muy grave conforme al presente pliego tendrán la consideración de obligaciones contractuales de carácter esencial, y su incumplimiento podrá dar lugar a la resolución del contrato.

ESKUca853639-4f2e-4a79-96ca-ea0cc4834a1b

38.2.2.- Bete beharreko hizkuntza baldintzak

a).- Enpresa esleipendunak, zerbitzua ematerakoan, Udalak bere hizkuntza-jarduera arautzeko dituen planen arabera jokatu beharko du eta 1/88 Udal Ordenantzak eta indarrean dauden hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideek xedaturikoari jarraiki jardungo du dagokion guztian.

b).- Udalarekiko harremanak: enpresak harreman jarraia eta aurrez aurrekoa badu udal langileekin, euskaraz egiteko gaitasuna duen enpresako langile bat izendatu beharko du.
Bilerak: enpresa adjudikazio hartzaileak bilera kudeatzeko jartzen duen pertsonak euskaraz egiteko gaitasuna izan beharko du. Bileran parte hartuko duten kide guztiak euskaldunak badira, bilera euskaraz egin beharko da. Ulermen maila bermatua dagoenean, berriz, nagusiki euskaraz egingo da.

Kontratuan zehar eratzen diren eta Udalari entregatzen zaizkion agiriek (azterlanak, txostenak, proiektuak, aurrekontuak, fakturak eta bestelakoak) euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan idatzita egon behar dute, euskarari lehentasuna emanez.

c).- Hizkuntza-paisaiari dagokionez, espazio publikoetan, jendaurrean, jartzen diren kartelak, seinaleak nahiz oharrak gutxienez euskaraz egongo dira. Ele bitan adierazitako kasuetan, euskarari emango zaio lehentasuna.

d).- Herritarrekiko harremanetan (halakorik balego), ahoz zerbitzua ematen denean, enpresa kontratistan zerbitzua ematen ari den pertsonak euskaraz ekin beharko dio elkarrizketari, eta, ondoren, erabiltzaileak aukeratutako hizkuntzan jarraitu beharko du.
Idatziz, enpresak zerbitzua ematerakoan herritarren esku jartzen dituen ziurtagiriak, txartelak, oharrak eta gainerako idatzi guztiak euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz emango ditu ezagutzera, eta, bigarren kasu horretan, euskarari eman beharko dio lehentasuna.

38.2.2.- Condiciones lingüísticas de ejecución

a).- La empresa adjudicataria prestará el servicio de acuerdo con los planes lingüísticos del Ayuntamiento y actuará, en todo aquello que le concierne, conforme a lo establecido por la Ordenanza Municipal 1/88 y por los Criterios para el Uso de los Idiomas Oficiales en vigor.

b).- Relaciones con el Ayuntamiento: si la empresa mantiene una relación continua y presencial con el personal del Ayuntamiento, deberá designar a un trabajador de la empresa con capacidad para hablar en euskera.
Reuniones: La persona que la empresa adjudicataria ponga a disposición de la gestión de la reunión deberá tener capacidad para expresarse en euskera. Si todos los miembros que participan en la reunión son euskaldunes, la reunión deberá realizarse en euskera. Cuando el nivel de comprensión esté garantizado, se hará preferentemente en euskera.
Los certificados, tarjetas, notas y otros escritos que la empresa adjudicataria expida a los empleados municipales durante la ejecución del contrato serán en euskera o en euskera y castellano. En el segundo caso, se dará prioridad al euskera.

c).- En cuanto al paisaje lingüístico, los carteles, señales o notas que se expongan en espacios públicos estarán al menos en euskera. En los casos expresados en bilingüe, se dará prioridad al euskera.

d).- En las relacionenes verbales con la ciudadanía (en su caso), la persona que esté prestando el servicio en la empresa contratista iniciará las conversaciones en euskera y, posteriormente, continuará en el idioma elegido por la persona usuaria.

En las relaciones por escrito, a la hora de prestar el servicio, la empresa difundirá en euskera o en euskera y castellano todos los certificados, tarjetas, notas y demás escritos para la ciudadanía. En el caso de utilizar ambas lenguas, dará prioridad al euskera.

38.2.3.- Emakume eta gizonen berdintasun arloko betebeharrak

1.- Enpresa esleipendunak, prestazioa ematean, emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasuna sustatzeko neurriak aplikatu beharko ditu, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz.
Neurri horien artean, nahitaezkoa da berdintasun-plan

38.2.3.- Obligaciones en materia de igualdad de mujeres y hombres

1.- La empresa adjudicataria estará obligada a aplicar, al realizar la prestación, medidas destinadas a promover la igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres, de conformidad con lo que prevé el artículo 20 de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la igualdad de mujeres y hombres.
Entre estas medidas deberá incluirse, necesariamente,

ESKUca853639-4f2e-4a79-96ca-ea0cc4834a1b

bat egitea eta aplikatzea, baldin eta enpresa esleipendunak 250 langile baino gutxiago ez baditu eta, beraz, 3/2007 Lege Organikoaren 45. artikuluaren arabera behartuta ez badago. Berdintasun-planak, beste neurri batzuen artean, emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasuna sustatzeko ekintzak aurreikus ditzake, honako gai hauetan, besteak beste: lana lortzea, sustapena eta prestakuntza, lanbide-sailkapena, ordainsariak, lan-denboraren antolamendua lana, norberaren bizitza eta familia bateragarri egiten laguntzeko, eta sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren prebentzioa.

Plan hori kontratua gauzatzeko esparruan egin behar da, aipatutako lege organikoan ezarritako edukiarekin.

Eusko Jaurlaritzaren otsailaren 11ko 11/2014 Dekretuan jasotako "Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetza Erakundea" aitorpena lortuz gero, enpresa kontratistaren antolakuntzan berdintasun-plan bat dagoela eta aplikatzen dela egiaztatu ahal izango da.

Administrazio kontratatzaileak uneoro eskatu ahal izango dio enpresa kontratistari egiazta dezala aitorpen hori erabiltzeko baldintzak betetzen dituela.

.

2.- Enpresa esleipendunak neurriak ezarri behar ditu kontratu honen gauzatzeari atxikitako langileen bizitza pertsonala eta/edo familia bateragarri egiteko, eta egiaztatu behar du, hala badagokio, enpresa azpikontratistak ere neurri berberak ezartzen dituela. Lana eta familia bateragarri egiteko sustapenaren barruan, familia-kargak dituzten langileen ordutegi-malgutasuna bermatzeko neurriak hartzeko betebeharra eskatuko zaio esleipendunari, edo familia-erantzukizunak dituzten langileen lanaldi partzialaren eta lanaldi osoaren arteko mugikortasuna ziurtatzeko mekanismoak hartzekoa.

3.- Kontratua gauzatzeko langile berriak kontratatu behar badira, eta enpresa kontratistak emakumeen ordezkaritza desorekatua badu kontratua gauzatzearekin lotutako plantillan, gutxienez beste emakume bat kontratatu beharko du, edo gutxienez emakume baten aldi baterako kontratazio bat kontratu mugagabe bihurtu beharko du. Plantilla desorekatutzat joko da emakumeen ordezkaritza edo presentzia guztizkoaren ehuneko 40tik beherakoa denean.

4.- Enpresa esleipendunak hizkuntza ez-sexista erabili beharko du kontratu hau gauzatzean sortzen den dokumentazio, publizitate, irudi edo material guztietan. Halaber, emakumeen bazterketa iradokitzen duten

la elaboración y la aplicación de un plan de igualdad, en caso de que la empresa adjudicataria no lo tenga por tener menos de 250 personas trabajadoras y, por lo tanto, no estar obligada de conformidad con el artículo 45 de la Ley Orgánica 3/2007. El plan de igualdad puede prever, entre otras medidas, acciones de fomento de la igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres en materias como el acceso a la ocupación, la promoción y la formación, la clasificación profesional, las retribuciones, la ordenación del tiempo de trabajo para favorecer la conciliación laboral, personal y familiar y la prevención del acoso sexual y del acoso por razón de sexo.

Este plan se tiene que elaborar en el marco de ejecución del contrato, con el contenido establecido en la ley orgánica mencionada.

La obtención del reconocimiento "Entidad Colaboradora para la igualdad de Mujeres y Hombres" recogida en el Decreto 11/2014, de 11 de febrero, del Gobierno Vasco, podrá acreditar la existencia y aplicación de un plan de igualdad en la organización de la empresa contratista.

La Administración contratante podrá en todo momento exigir de la empresa contratista la acreditación del cumplimiento de las condiciones de utilización de dicho reconocimiento.

2.- La empresa adjudicataria tiene que establecer medidas que favorezcan la conciliación de la vida personal y/o familiar de las personas trabajadoras adscritas a la ejecución de este contrato y verificar que, en su caso, la empresa subcontratista también a establecido las mismas medidas.

Dentro de la promoción de la conciliación de la vida laboral y familiar, se exigirá la obligación a la adjudicataria de adoptar medidas para asegurar la flexibilidad horaria para el personal con cargas familiares o adoptar mecanismos destinados a asegurar la movilidad entre tiempo parcial y tiempo completo para las y los trabajadores con responsabilidades familiares.

3.- En el caso de que para la ejecución del contrato sea necesaria una contratación nueva de personal y la empresa contratista cuente con una representación desequilibrada de mujeres en la plantilla vinculada a la ejecución del contrato, deberá realizar al menos una nueva contratación de mujer o transformar al menos una contratación temporal de mujer en contratación indefinida. Se entenderá por plantilla desequilibrada aquélla que cuente con una representación o presencia de mujeres inferior al 40 por ciento del total de la misma.

4.- La empresa adjudicataria deberá utilizar un lenguaje no sexista en toda su documentación, publicidad, imagen o material que se genere con motivo de la ejecución del contrato, y deberá evitar cualquier imagen

ESKUca853639-4f2e-4a79-96ca-ea0cc4834a1b

irudiak edota estereotipo sexistak ekidin beharko ditu, eta berdintasun balioak, presentzia orekatua, aniztasuna, baterako erantzukizuna eta genero rol zein identitateen aniztasuna sustatu beharko ditu.

5.- Aurreko paragrafoetan ezarritako betebeharrak gauzatzeko baldintza berezi gisa ezartzen dira, eta kontratua gauzatzeko esparruan egiaztatu beharko dira. Bete ezean, zigor ekonomikoak ezarriko dira, ez-betetzearen larritasunaren arabera, eta zigor horien zenbatekoa ezin izango da izan kontratuaren prezioaren 100eko 10 baino handiagoa. Nolanahi ere, baldintza-agiri honen arabera oso larriak diren ez-betetzeak funtsezko kontratu-betebehartzat hartuko dira, eta horiek ez betetzeak kontratua suntsiaraztea ekar dezake.

discriminatoria de las mujeres o estereotipos sexistas y fomentar una imagen con valores de igualdad, presencia equilibrada, diversidad, corresponsabilidad y pluralidad de roles e identidades de género.

5.- Las obligaciones impuestas en los párrafos anteriores se establecen como condiciones especiales de ejecución y deberán ser acreditadas en el marco de ejecución del contrato. Su incumplimiento supondrá la imposición de penalidades económicas, proporcionales a la gravedad del incumplimiento y su cuantía no podrá ser superior al 10 por 100 del precio del contrato. En todo caso, las obligaciones cuyo incumplimiento tiene carácter muy grave conforme al presente pliego tendrán la consideración de obligaciones contractuales de carácter esencial, y su incumplimiento podrá dar lugar a la resolución del contrato.

38.2.4.- Azpikontratazioa

1.- Enpresa kontratistak hirugarrenekin hitzartu ahal izango du prestazioaren zati bat egitea. Azpikontratuak egiteko, SPKLren 215. artikuluaren 2. atalaren arabera eska daitezkeen baldintzak bete beharko dira.

2.- Karatulako **15. atalean** adierazitako zeregin kritikoak ezin dira azpikontratatu, eta kontratista nagusiak egin beharko ditu zuzenean.

3.- SPKLren 215.2 artikuluan ezarritako betebeharrak betetzen ez badira, artikulu bereko 3. eta 4. apartatuetan xedatutakoa aplikatuko da.

4.- Enpresa azpikontratistek enpresa kontratista nagusiaren aurrean bakarrik izango dituzte betebeharrak, eta, beraz, enpresa kontratista nagusiak bere gain hartuko du Administrazioaren aurrean kontratua gauzatzeko erantzukizun osoa, gizarte- edo lan-arloko betebeharrak betetzea barne.

5.- Enpresa kontratistak azpikontratistei egiten dizkien ordainketak SPKLren 216. artikuluan xedatutakoari egokitu beharko zaizkio.

6.- Horrez gain, kontratistak betebehar hauek bete beharko ditu:

a).- Enpresa kontratistak Eraikuntza Sektoreko Azpikontratazioa arautzen duen urriaren 18ko 32/2006 Legean azpikontratazioari buruz ezarritako arauak beteko ditu, bai eta laneko segurtasunari eta osasunari buruz indarrean dagoen araudia ere, eta azpikontratista bakoitzak araudi hori betetzen duela bermatuko du. Zehazki, azpikontratatzen duen enpresa orok honako betebehar hauek betetzen

38.2.4.-Subcontratación

1.- La empresa contratista podrá concertar con terceras partes la realización parcial de la prestación, La celebración de los subcontratos estará sometida al cumplimiento de los requisitos exigibles de conformidad con el apartado 2 del artículo 215 de la LCSP.

2.- Las tareas críticas que se indican en el **apartado 15** de la carátula no pueden ser objeto de subcontratación, debiendo ser ejecutadas directamente por la contratista principal.

3.- En caso de incumplimiento de las obligaciones establecidas en el artículo 215.2 de la LCSP será de aplicación lo dispuesto en los apartados 3 y 4 del mismo artículo

4.- Las empresas subcontratistas quedarán obligadas sólo ante la empresa contratista principal que asumirá, por tanto, la total responsabilidad de la ejecución del contrato frente a la Administración, incluido el cumplimiento de las obligaciones en materia social o laboral.

5.- Los pagos que la empresa contratista realice a las empresas subcontratistas deberán ajustarse a lo dispuesto en el artículo 216 de la LCSP.

6.- La contratista cumplirá, además, las siguientes obligaciones:

a).- La empresa contratista cumplirá las normas sobre subcontratación establecidas en la Ley 32/2006, de 18 de octubre, Reguladora de la Subcontratación en el Sector de la Construcción, así como la normativa vigente en materia de seguridad y salud en el trabajo, y asegurará el cumplimiento de dicha normativa por parte cada subcontratista. En concreto, deberá verificar que toda empresa que

ESKUca853639-4f2e-4a79-96ca-ea0cc4834a1b

dituela egiaztatu beharko du, kontratua gauzatzeari dagokionez:

- jarduera gauzatzeko eta lanen zuzendaritza zuzenean burutzeko egokiak diren azpiegitura eta bitartekoak dituela erabilgarri, eta langileak ez direla legez kanpo laga.
- bere langileek laneko arriskuen prebentzioari buruz beharrezkoa den prestakuntza dutela.
- prebentzio arloko antolaketa egokia duela.
- laneko segurtasun eta osasun arloko betebehar guztiak betetzen dituela, eta, zehazki, prebentzio jarduerak koordinatzeari buruzkoak eta beharrezkoak diren prebentzio baliabideak erabiltzeari buruzkoak.

- kontratu mugagabea duten langileen gutxieneko portzentajea % 30ekoa dela, laneko egonkortasuna bermatzeko helburuarekin.

- Egiaztatutako Enpresen Erregistroan inskribatuta dagoela.
- Legean ezarritako azpikontratazio-araubideko mugak betetzen dituela.

b).-Enpresa kontratistak Azpikontratazio Liburua eduki beharko du, eta liburu hori eskura egongo da obran esku hartzen duten eragile guztientzat. Gainera, Azpikontratazio Liburuan egindako anotazio guztiak segurtasun eta osasun arloko koordinatzaileari jakinarazi beharko dizkio.

c).-Enpresa kontratistak obran parte hartzen ari diren enpresa guztietako langileen ordezkariei berri eman beharko die bai obran egindako kontratazio edo azpikontratazioei buruz, bai jarduerak koordinatzeko aurreikusi diren neurriei buruz.

d).-Enpresa kontratistak egiaztatu behar du, azpikontratatutako jarduerari ekin aurretik, azpikontratatutako enpresetako langileen Gizarte Segurantzako alta eta afiliazioa, eta kontratazio organoari jakinarazi behar dio.

e).-Kontratistak inola ere ezingo du hitzartu kontratuaren zati bat egitea lege ordenamenduaren arabera kontratatzeko ezgaituta dauden pertsonekin edo Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 71. artikuluan jasotako kasuetan daudenekin.

f).-Enpresa kontratistak egiaztatu egin beharko du enpresa azpikontratistak, langile berriak kontratatu behar baditu kontratua egikaritzeko, lehenetsi dituela gizartetik baztertuak izateko arriskuan dauden pertsonak, lanik ez dutenak edo lan-merkatuan sartzeko zailtasun handiak dituztenak.

subcontrate cumple las siguientes obligaciones, con relación a la ejecución del contrato:

- que dispone de infraestructura y medios adecuados para llevar a cabo la actividad y ejercer directamente la dirección de los trabajos, y que no se haya producido la cesión ilegal de personas trabajadoras.
- que su personal dispone de la formación necesaria en materia de prevención de riesgos laborales.
- que dispone de una organización preventiva adecuada.
- que cumple todas las obligaciones en materia de seguridad y salud laboral y, más concretamente, la normativa sobre la coordinación de actividades preventivas y puesta a disposición de los recursos preventivos cuando sean necesarios.
- que dispone de un porcentaje mínimo del 30% de trabajadores y trabajadoras con contrato indefinido, con el fin de garantizar la estabilidad laboral.
- que está inscrito en el Registro de Empresas Acreditadas.
- que cumple los límites en el régimen de subcontratación establecidos en la Ley.

b).- La empresa contratista deberá disponer del Libro de subcontratación y dar acceso al Libro de subcontratación a la totalidad de agentes que intervienen en la obra, y comunicar cada subcontratación anotada en el Libro de Subcontratación a la Coordinación de seguridad y salud.

c).- La empresa contratista deberá informar a las y los representantes de los trabajadores y trabajadoras de todas las empresas de la obra, sobre todas las contrataciones o subcontrataciones de la obra, así como de las medidas previstas para la coordinación de actividades.

d).- La empresa contratista comprobará, con carácter previo al inicio de la actividad subcontratada, la afiliación y el alta en la Seguridad Social de las y los trabajadores de las empresas con las cuales subcontrate y deberá comunicarlo al órgano de contratación.

e).- En ningún caso podrá concertarse por la empresa contratista la ejecución parcial del contrato con personas inhabilitadas para contratar de acuerdo con el ordenamiento jurídico, o comprendidas en alguno de los supuestos del artículo 71 de la LCSP.

f).- La empresa contratista verificará que la empresa subcontratista, si tiene que contratar nuevo personal para la ejecución del contrato, favorece la contratación de personas en riesgo de exclusión social, que estén desocupadas o que tengan dificultades importantes para integrarse en el mercado de trabajo.

ESKUca853639-4f2e-4a79-96ca-ea0cc4834a1b

7.- Enpresa kontratistak azpikontratazioaren berri emango die langileen ordezkariei, lan arloko legediak agintzen duen bezala.

8.- Enpresa edo erakunde adjudikaziodunak kontratazio organoari aurkeztu beharko dio azpikontratuaren dokumentua, eta dokumentu horretan ezarriko dira azpikontratatuak kontratua betetzeko dituen obligazioak eta ez betetzeak ekarriko dituen ondorioak.

9.- Aurreko paragrafoetan ezarritako betebeharrak gauzatzeko baldintza berezi moduan ezartzen dira, baldin eta ez badaude jasoak indarrean dagoen kontratazio araudian, eta egiaztatu egin beharko dira kontratuan. Betebehar horiek bete ezean isun ekonomikoak ezarriko dira, ez betetzearen larritasunaren araberakoak, eta isun horiek ezingo dute gainditu kontratuaren prezioaren % 10. Nolanahi ere, betebehar bat ez betetzea oso larritzat jotzen den kasuetan, betebehar hori kontratuaren funtsezko betebehartzat joko da eta hura ez betetzeak kontratua suntsitzea ekarri ahal izango du, betiere, SPKLaren 211. artikuluko 1. ataleko f) idatz-zatiaren bigarren lerroaldean ezarritako betekizunak betetzen badira.

10.- Administrazio kontratugile honek egiaztatu ahal izango du enpresa kontratistak zorrotz bete dituela bertan parte hartzen duten azpikontratista edo hornitzaile guztiei egin beharreko ordainketak. Kasu horretan, enpresa kontratistak administrazio kontratatzaileari bidaliko dio, hark hala eskatzen duenean, kontratuan parte hartzen duten azpikontratisten edo hornitzaileen zerrenda zehatza, baldin eta haien partaidetza perfekzionatzen bada, bai eta horietako bakoitzaren azpikontratazio- edo hornidura-baldintzak ere, ordainketa-epearekin lotura zuzena dutenak. Era berean, Administrazio honek eskatuta, prestazioa amaitu ondoren ordainketak egin izanaren egiaztagiria aurkeztu beharko dute, 216. artikuluan eta abenduaren 29ko 3/2004 Legean ezarritako legezko ordainketa-epeen barruan, aplikagarri zaien guztian. Betebehar horiek exekuzio-baldintza berezitzat hartzen dira, eta horiek ez betetzeak, ordenamendu juridikoak aurreikusitako ondorioez gain, ondoren adierazten diren zigorrak ezartzea ahalbidetuko du: eguneko zigorrak, ordainketa atzeratzen den egun natural bakoitzeko, hau da, kontratuaren prezioaren 1.000 euroko 0,60koak, eta zenbatekoa ezin izango da inola ere kontratuaren prezioaren 100eko 10 baino handiagoa izan.

7.- La empresa contratista deberá informar a las y los representantes del personal adscrito a la subcontratación, de acuerdo con la legislación laboral.

8.- La empresa o entidad adjudicataria deberá presentar ante el órgano de contratación el documento en el que se plasmará el subcontrato, que deberá establecer las obligaciones de la empresa o entidad subcontratista con relación a las cláusulas previstas en el presente contrato y las consecuencias de su incumplimiento.

9.- Las obligaciones establecidas en los párrafos anteriores que no vienen impuestas en la normativa de contratación vigente se establecen como condiciones especiales de ejecución y deberán ser acreditadas en el marco de ejecución del contrato. Su incumplimiento supondrá la imposición de penalidades económicas, proporcionales a la gravedad del incumplimiento y su cuantía no podrá ser superior al 10 por 100 del precio del contrato En todo caso, las obligaciones cuyo incumplimiento tiene carácter muy grave conforme al presente pliego tendrán la consideración de obligaciones contractuales de carácter esencial, y su incumplimiento podrá dar lugar a la resolución del contrato, siempre y cuando se cumplan los requisitos establecidos en el segundo párrafo de la letra f) del apartado 1 del artículo 211 de la LCSP.

10.- Esta Administración contratante podrá comprobar el estricto cumplimiento de los pagos que la empresa contratista ha de hacer a todos los subcontratistas o suministradores que participen en los mismos.

En tal caso la empresa contratista remitirá a la Administración contratante, cuando esta lo solicite, relación detallada de aquellos subcontratistas o suministradores que participen en el contrato cuando se perfeccione su participación, junto con aquellas condiciones de subcontratación o suministro de cada uno de ellos que guarden una relación directa con el plazo de pago. Asimismo, deberán aportar a solicitud de esta Administración justificante de cumplimiento de los pagos a aquellos una vez terminada la prestación dentro de los plazos de pago legalmente establecidos en el artículo 216 y en la Ley 3/2004, de 29 de diciembre, en lo que le sea de aplicación. Estas obligaciones, se consideran condiciones especiales de ejecución, cuyo incumplimiento, además de las consecuencias previstas por el ordenamiento jurídico, permitirá la imposición de las penalidades que se indican a continuación: penalidades diarias, por cada día natural de retraso en el pago, de 0,60 por cada 1.000 euros del precio del contrato sin que en ningún caso su cuantía pueda superar el 10 por 100 del precio del contrato.

ESKUca853639-4f2e-4a79-96ca-ea0cc4834a1b

38.2.5.- Informazioaren segurtasunaren arloko betebeharrak

1.- Informazioaren segurtasunari buruzko legedia bete beharko du esleipendunak, era berean araudi horren inguruko informazioa eta prestakuntza eman beharko die bere langileei (legeak zehaztutako mailan).

2.- Esleipendunak eta datu pertsonalen tratamenduaren edozein fasetan parte hartzen duen edozein pertsonak horiei buruzko sekretu profesionala mantendu beharko du, eta datu horiek babestu beharko ditu. Obligazio horiek indarrean egongo dira Andoaingo Udalarekin duen harremana amaituta ere.

3.- Enpresa kontratistak kontratua betetzeko beharrezko izan ditzakeen izaera pertsonaleko datuen erabilera datu pertsonalen babesaren esparruan indarrean dagoen legeria betez egingo da; baita entitate kontratatzaileak xedatutakoa betez ere.

4.- Esleipendunak ezingo dizkie laga datu horiek hirugarrenei edo kontratua betetzeko helburu zehatzak ez diren beste helburuetarako erabili.

5.- Esleipendunak, datu horien tratamendurako arduradun gisa, datu pertsonalen segurtasunerako beharrezkoak diren neurri tekniko edo antolakuntzazkoak aplikatuko ditu, datu horiek aldatzea, galtzea, baimenik gabe tratatzea edo eskuratzea –giza jardueraren ondorioz edo ingurune fisiko edo naturalaren ondorioz– saihesteko.

6.- Kontratuaren iraunaldian zehar, entitate kontratatzaileak beharrezkotzat jotzen dituen kontrolak egitea onartuko du esleipendunak, hain zuzen ere segurtasun neurriak betetzen direla egiaztatzeko eta beharrezko neurri zuzentzaileak ezarri ahal izateko.

7.- Kontratuko zerbitzua amaitu ondoren, esleipendunak izaera pertsonaleko datuak deuseztatu beharko ditu, edo itzuli beharko dizkio entitate kontratatzaileari edota Administrazioak izendatutako tratamendurako arduradunari.

3.- Ez dira obra-kontratuko aldaketatzat hartuko 242. artikuluko 4. atalean (in fine) ezarritakoak.

51.2.- Modificaciones no previstas

1.- Sólo podrán introducirse modificaciones distintas de las previstas en el **apartado 22** de la carátula cuando se justifique suficientemente la concurrencia de alguno o varios de los supuestos tasados del artículo 205.2 de la LCSP y que se limiten a introducir las variaciones estrictamente indispensables para responder a la causa objetiva que la haga necesaria.

2.- Sin perjuicio de lo establecido en el artículo 205 de la LCSP, antes de proceder a la modificación del contrato en estos supuestos, deberá darse audiencia a la persona redactora de las especificaciones técnicas, si estas han sido preparadas por una tercera persona ajena al órgano de contratación en virtud de un contrato de servicios, para que, en un plazo no inferior a 3 días naturales, formule las consideraciones que tenga por conveniente.

3.- No tendrán consideración de modificaciones del contrato de obras las establecidas en el apartado 4 in fine del artículo 242.

51.3.- Aldaketen araubidea

Aldaketen araubideari dagokionez, SPKLaren Bigarren Liburuko I. tituluko I. kapituluko 3. ataleko 4. azpiatalean xedatutakoa eta SPKLaren 191. eta 242. artikuluetan xedatutakoa bete beharko da, baita arauz xedatutakoa ere.

51.3.- Régimen de modificación

En lo concerniente a su régimen se estará a lo dispuesto en la Subsección 4 ª de la Sección 3ª del Capítulo I del Título I del Libro Segundo de la LCSP, y los artículos 191 y 242 de la LCPS , así como a lo dispuesto reglamentariamente.

52.- Obrak etetea

1.- Administrazioak, interes publikoko arrazoiengatik, kontratuaren betearazpena etetea erabaki dezake. Era berean, kontratua eten egingo da SPKLren 198.5 artikuluan adierazitako egoera gertatzen bada. Kontratua eteteko, SPKLren 208. artikuluan eta APKLEOren 103. artikuluan, Estatuaren obrak kontratatzeko administrazio-klausula orokorren agiriko 63. klausulan eta hurrengoetan xedatutakoari jarraituko zaio.

2.- SPKLren 208. artikuluarekin bat etorriz, Administrazioak kontratua etetea erabakitzen badu edo SPKLren 198.5 artikuluan xedatutakoa aplikatzeagatik eteten bada, Administrazioak benetan jasandako kalte-galerak ordainduko dizkio kontratistari.

52.- Suspensión de las obras.

1.- La Administración, por razones de interés público, podrá acordar la suspensión de la ejecución del contrato. Igualmente, procederá la suspensión del contrato si se diese la circunstancia señalada en el artículo 198.5 de la LCSP. A efectos de la suspensión del contrato se estará a lo dispuesto en el artículo 208 de la LCSP así como en el artículo 103 del RGLCAP, cláusulas 63 y siguientes del Pliego de Cláusulas Administrativas Generales para la contratación de obras del Estado.

2.- De conformidad con el artículo 208 LCSP, si la Administración acordase la suspensión del contrato o aquella tuviere lugar por la aplicación de lo dispuesto en el artículo 198.5 LCSP, la Administración abonará al contratista los daños y perjuicios efectivamente

ESKUca853639-4f2e-4a79-96ca-ea0cc4834a1b

sufridos por éste.

53.- Neurketak, balorazioa eta konturako ordainketak

1.- Kontratistari soilik proiektuko dokumentuekin bat etorriz egindako obra ordainduko zaio.

2.- Ezin izango da ziurtagiririk eman eta, ondorioz, ezin izango da ordainketarik egin kontratua formalizatu arte.

3.- Obraren zuzendaritzak hilero neurtuko ditu egindako lanak, eta kontratistak neurketa-lan horiek ikusi ahal izango ditu. Obren edo obra-zatien neurriak eta ezaugarriak gerora eta behin betiko ezkutuan utzi behar direnean, kontratista behartuta dago behar besteko aurrerapenaz abisatzera, zuzendaritzak dagozkion neurketak egin eta datuak hartu ahal izan ditzan, eta horiek definitzen dituzten planoak egin ditzan. Planoak kontratistak sinatuko ditu. Aldez aurreko abisurik ez badago, eta hori frogatzea kontratistari badagokio, kontratistak onartu egin beharko ditu administrazioak gai horri buruz hartutako erabakiak.

4.- Obra mota bakoitzerako, proiektuan adierazitakoa hartuko da neurketa-unitatetzat, neurketei dagokien zatian. Neurketa amaitu ondoren, zuzendaritza fakultatiboak hilero idatziko du jatorrizkoarekiko erlazio baloratua.

5.- Gauzatutako obra baloratzeko, honako hauek hartuko dira kontuan: proiektuaren unitateko prezioen taulan obra-unitate bakoitzerako agertzen diren gauzatze materialaren prezioak eta kontratuan aurreikusi ez diren eta behar bezala baimendu diren obra-unitate berrien prezioak, eta, halaber, kontuan hartuko da obra akastunak, metatutako materialak, oroharreko partidak eta obran jarritako ekipoaren konturako ordainketak ordaintzeko pleguetan aurreikusitakoa.

6.- Aurreko paragrafoan adierazitako moduan lortutako balorazioaren emaitzari handitu egingo zaizkio aurrekontua osatzeko APKLEOren 131. artikuluan adierazitako ehunekoak, eta ateratzen den zifra esleipen-koefizientearekin biderkatuko da. Horrela, hileroko erlazio baloratua lortuko da, eta ondorioz, hileroko ziurtagiria egingo da, Administrazioak dagokion hilabetearen ondorengo hamar egunetan emango duena.

7.- Horretarako, Administrazioak behin betiko finkatuko du esleipen-koefizientea, proposamen onuragarrienari esleipena emateko ebazpenean.

Esleipen-koefizientea enpresa esleipendunak bere proposamenaren eskaintza ekonomikoan adierazitako prezioaren eta lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren arteko erlaziotik ateratzen dena izango da.

53.- Mediciones y valoración y abonos a cuenta

1.- Sólo se abonará al contratista la obra que realice conforme a los documentos del proyecto.

2.- No podrá emitirse ninguna certificación y, en consecuencia, realizarse ningún pago hasta que se haya formalizado el contrato.

3.- La dirección de la obra realizará mensualmente la medición de los trabajos efectuados, pudiendo el contratista presenciar la realización de las mismas. Para las obras o partes de obra cuyas dimensiones y características hayan de quedar posterior y definitivamente ocultas, el contratista está obligado a avisar con la suficiente antelación, a fin de que la dirección pueda realizar las correspondientes mediciones y toma de datos, levantando los planos que las definan, cuya conformidad suscribirá el contratista. A falta de aviso anticipado, cuya prueba corresponde al contratista, queda éste obligado a aceptar las decisiones de la Administración sobre el particular.

4.- Para cada clase de obra se adoptará como unidad de medida la señalada en el proyecto, en la parte correspondiente a las mediciones. Terminada la medición, por la dirección facultativa se procederá mensualmente a la redacción de la relación valorada al origen.

5.- La obra ejecutada se valorará a los precios de ejecución material que figuren en el cuadro de precios unitarios del proyecto para cada unidad de obra y a los precios de las nuevas unidades de obra no previstas en el contrato que hayan sido debidamente autorizados y teniendo en cuenta lo prevenido en los correspondientes pliegos para abonos de obras defectuosas, materiales acopiados, partidas alzadas y abonos a cuenta del equipo puesto en obra.

6.- Al resultado de la valoración, obtenido en la forma expresada en el párrafo anterior, se le aumentarán los porcentajes señalados en el artículo 131 del RGLCAP adoptados para formar el presupuesto y la cifra que resulte se multiplicará por el coeficiente de adjudicación, obteniendo así la relación valorada mensual, que dará lugar a la certificación mensual, la que se expedirá por la Administración en los diez días siguientes al mes que corresponda.

7.- A estos efectos En la resolución por la que se otorgue la adjudicación a la propuesta considerada más ventajosa, la Administración fijará definitivamente el coeficiente de adjudicación.

El coeficiente de adjudicación será el que resulte de la relación entre el precio señalado por la empresa adjudicataria en la oferta económica de su propuesta y el presupuesto base de licitación.

Los precios unitarios que regirán durante la

ESKUca853639-4f2e-4a79-96ca-ea0cc4834a1b

Lanak egiten diren bitartean, Administrazioak onartutako proiektuan azaltzen diren prezio unitarioak aplikatuko dira. Prezio horiek enpresa lizitatzaileak egindako eskaintza ekonomikoaren ondoriozko esleipen-koefizientearen eraginpean egongo dira.

8.- Aurrekontuan oroharreko prezioan adierazitako partidak baldintza tekniko berezien pleguan adierazitako moduan ordainduko dira, eta halakorik ezean, HAKLAOaren 154. artikuluan xedatutakoa bete beharko da.

9.- Justifikatu beharreko oroharreko partidak ordaintzeko, eta jarduketak obra-unitateak aplikatzeko ematen ez direnean, Administrazioak kontuan hartu ahal izango du obren zuzendaritza fakultatiboak baimendu eta babestutako hirugarren aldeek fakturatzeko aukera. Fakturatutako zenbateko likidoa enpresa kontratistak ordaindu eta Administrazioak itzuliko du, eta hurrengo hilean egiten den obra-ziurtagirian sartuko da. Zenbateko hori % 13an handituko da, gastu orokorren kontzeptuan, eta ez du beste igoerarik izango, ez eta esleipenaren baja ere.

10.- Baloratutako zerrenda izapidetzearekin batera, obraren zuzendaritzak ale bat bidaliko dio kontratistari, ados dagoen edo eragozpenik duen jakiteko. Kontratistak egokitzat jotzen dituen alegazioak aurkeztu ahal izango ditu, gehienez ere hamar egun balioduneko epean, agiri hori jasotzen duenetik zenbatzen hasita.

Epe hori igaro eta kontratistak alegaziorik aurkeztu ez badu, erlazio baloratuari adostasuna eman zaiola ulertuko da. Bestela, kontratistaren alegazioak osorik edo zati batean onartzen badira, alegazio horiek kontuan hartuko dira hurrengo erlazio baloratua idazterakoan edo, hala badagokio, kontratuaren azken ziurtagirian edo likidazioan.

SPKLren hogeita hamabigarren xedapen gehigarriaren bigarren atalaren arabera, kontratistak kontabilitate publikoaren arloan eskumenak dituen administrazio-organoaren, kontratazio-organoaren eta hartzailearen identifikazioa jaso beharko du aurkeztutako faktura bakoitzean, karatulako **1. atalean** xedatutakoaren arabera.

11.- Obra-ziurtagiriak onartu eta hurrengo hogeita hamar egunen barruan ordaindu beharko du prezioa administrazioak, eta atzeratzen bada, berandutze-interesak eta kobrantza-kostuen kalte-ordainak ordaindu beharko dizkio kontratistari, hogeita hamar eguneko epe hori betetzen denetik aurrera, merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean aurreikusitako moduan.

Interesak sortzeko epea zenbatzen hasteko, kontratistak faktura dagokion administrazio-

ejecución de los trabajos serán los que figuran en el proyecto aprobado por la Administración, afectados por el coeficiente de adjudicación resultante de la oferta económica realizada por la empresa licitadora.

8.- Las partidas señaladas en el presupuesto a tanto alzado, se valorarán y abonarán conforme se indica en el pliego de prescripciones técnicas particulares. En su defecto, se estará a lo dispuesto en el artículo 154 del RGLCAP.

9.- Para el abono de las partidas alzadas a justificar, y cuando las actuaciones no se presten a la aplicación de unidades de obra, podrá considerarse por la Administración la posibilidad de facturación por terceras partes previamente autorizada y respaldada por la dirección facultativa de las obras. El importe líquido facturado será abonado por la empresa contratista y reembolsado por la Administración incluyéndolo en la certificación de obra que se expida al mes siguiente. Dicho importe se incrementará aplicando un porcentaje del 13 por 100 en concepto de gastos generales y no estará sujeto a ningún otro incremento ni a la baja de adjudicación.

10.- Simultáneamente a la tramitación de la relación valorada la dirección de la obra enviará un ejemplar al contratista a efectos de su conformidad o reparos, pudiendo éste formular las alegaciones que estime oportunas en un plazo máximo de diez días hábiles a partir de la recepción del expresado documento.

Transcurrido este plazo sin formular alegaciones por parte del contratista se considerará otorgada la conformidad a la relación valorada. En caso contrario y de aceptarse en todo o parte las alegaciones del contratista, éstas se tendrán en cuenta a la hora de redactar la próxima relación valorada o, en su caso, en la certificación final o en la liquidación del contrato.

De conformidad con el apartado dos de la disposición adicional trigésima segunda de la LCSP, el contratista deberá hacer constar en cada factura presentada, la identificación tanto del órgano administrativo con competencias en materia de contabilidad pública, como del órgano de contratación y del destinatario, según lo dispuesto en el apartado 1 de la carátula.

11.- La Administración tendrá la obligación de abonar el precio dentro de los treinta días siguientes a la fecha de aprobación de las certificaciones de obra y si se demorase, deberá abonar al contratista, a partir del cumplimiento de dicho plazo de treinta días los intereses de demora y la indemnización por los costes de cobro en los términos previstos en la Ley 3/2004, de 29 de diciembre, por la que se establecen medidas de lucha contra la morosidad en las operaciones comerciales.

Para que haya lugar al inicio del cómputo de plazo para el devengo de intereses, el contratista deberá

ESKUca853639-4f2e-4a79-96ca-ea0cc4834a1b

erregistroan aurkezteko betebeharra bete beharko du, faktura elektronikoari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako moduan, hogeita hamar eguneko epean, salgaiak benetan entregatu edo zerbitzua eman den egunetik zenbatzen hasita.

12.- 210. artikuluko 4. paragrafoan eta 243. artikuluko 1. paragrafoan ezarritakoari kalterik egin gabe, Administrazioak obra-ziurtagiriak edo kontratuan xedatutakoarekin bat datozela egiaztatzen duten agiriak onartu beharko ditu, ondasunak benetan entregatu edo zerbitzua eman eta hogeita hamar eguneko epean.

13.- Nolanahi ere, kontratistak hogeita hamar eguneko epea betetzen ez badu faktura dagokion administrazio-erregistroan aurkezteko, faktura elektronikoari buruz indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera, interesen sortzapena ez da hasiko faktura behar bezala aurkezten denetik hogeita hamar egun igaro arte, Administrazioak adostasuna eman –hala badagokio– eta dagokion ordainketa egin gabe.

Hala eta guztiz ere, kontratuan ezarritako urtekoen zenbatekoa gainditzen duten ziurtagirietan, ez da legez aurreikusitako epea zenbatuko onartzen den egunetik hasita, baizik eta onartutako lan-programaren eta hitzartutako baldintzen arabera bete beharko litzatekeen datatik aurrera.

14.- Ematen diren ziurtagiriak eta kontratistari ordaintzen zaizkion zenbatekoak konturako ordainketatzat hartuko dira, eta ez dute obraren onarpenik eta harrerarik ekarriko, gauzatutako obren azken ziurtagiria kontuan izanda eta kontratuaren likidazioaren kontura. Konturako ordainketa horietan 198. artikuluko 2. paragrafoko bigarren lerrokadan xedatutakoa beteko da.

15.- Enpresa kontratistak hirugarren bati laga ahal izango dio, legez ezarritako edozein bide erabiliz, kontratuaren prezioa kobratzeko eskubidea, baina lagapen horrek ondorioak izan ditzan, eta Administrazioak ordainketa-agindua eman dezan lagapen-hartzailearen alde, azken horri modu frogagarrian jakinarazi behar zaio lagapen-erabakia.

16.- Kontratistak, plegu honen karatulako **26. atalean** adierazitako baldintzetan eta aldez aurretik idatziz eskatuta, material pilatuengatik eta instalazio edo ekipoengatik konturako ordainketak jasotzeko eskubidea izango du, HAKLEOren 155. artikulutik 157. artikulura bitartean horretarako ezarritako moduan eta

haber cumplido la obligación de presentar la factura ante el registro administrativo correspondiente en los términos establecidos en la normativa vigente sobre factura electrónica, en tiempo y forma, en el plazo de treinta días desde la fecha de entrega efectiva de las mercancías o la prestación del servicio.

12.- Sin perjuicio de lo establecido en el apartado 4 del artículo 210 y en el apartado 1 del artículo 243, la Administración deberá aprobar las certificaciones de obra o los documentos que acrediten la conformidad con lo dispuesto en el contrato de los bienes entregados o servicios prestados dentro de los treinta días siguientes a la entrega efectiva de los bienes o prestación del servicio.

13.- En todo caso, si el contratista incumpliera el plazo de treinta días para presentar la factura ante el registro administrativo correspondiente en los términos establecidos en la normativa vigente sobre factura electrónica, el devengo de intereses no se iniciará hasta transcurridos treinta días desde la fecha de la correcta presentación de la factura, sin que la Administración haya aprobado la conformidad, si procede, y efectuado el correspondiente abono.

Ello no obstante, en las certificaciones que se extiendan excediendo del importe de las anualidades que rijan en el contrato no se contará el plazo legalmente previsto desde la fecha de su aprobación, sino desde aquélla otra posterior en la que con arreglo a las condiciones convenidas y programas de trabajo aprobados deberían producirse.

14.- Las certificaciones que se expidan y las cantidades que se abonen al contratista tendrán el carácter de abonos a cuenta y no supondrán en forma alguna aprobación y recepción de las obras que comprenden, a resultas de la certificación final de las obras ejecutadas y a cuenta de la liquidación del contrato. En estos abonos a cuenta se observará lo dispuesto en el párrafo segundo del apartado 2 del artículo 198.

15.- La empresa contratista podrá ceder a una tercera parte, por cualquiera de los medios legalmente establecidos, su derecho a cobrar el precio del contrato, pero para que dicha cesión surta efectos, y la Administración expida el mandamiento de pago a favor de la entidad cesionaria, es preciso que se le notifique fehacientemente a ésta última el acuerdo de cesión.

16.- El contratista en las condiciones señaladas en el **apartado 26** de la carátula del presente pliego los respectivos pliegos, previa petición escrita, tendrá derecho a percibir abonos a cuenta por materiales acopiados y por instalaciones o equipos, en la forma y con las garantías que, a tal efecto determinan los artículos 155 a 157 del RGLCAP. La cuantía y condiciones se encuentran señaladas en el citado

ESKUca853639-4f2e-4a79-96ca-ea0cc4834a1b

bermeekin. Zenbatekoa eta baldintzak **26. atal** horretan daude adierazita. Aipatutako ordainketak atal horretan zehazten den bermearen bidez aseguratuko dira.

apartado 26. Los referidos pagos serán asegurados mediante la prestación de la garantía que se especifica en dicho apartado.

54.- Obra amaitu dela abisatzea

Kontratistak, karatulako **29. atalean** aurreikusitako aurrerapenarekin, idatziz jakinaraziko dio obraren zuzendaritzari kontratua amaitzeko edo gauzatzeko aurreikusitako data, obraren harrera egin ahal izateko. APKLEOren 163. artikuluan ezarritakoaren arabera arautuko dira komunikazio hori izapidetzeko prozedura eta epeak, jasotzeko eta Kontu-hartzailetza Sailari jakinarazteko ordezkaria izendatzea.

54.- Aviso de terminación de la ejecución de la obra

El contratista, con la antelación prevista en el **apartado 29** de la carátula, comunicará por escrito a la dirección de la obra la fecha prevista para la terminación o ejecución del contrato, a efectos de que se pueda realizar su recepción. El procedimiento y plazos para la tramitación de esta comunicación, la designación de representante para la recepción y la comunicación, a la Intervención, se regularán por lo establecido en el artículo 163 del RGLCAP.

55.- Obraren harrera

1.- Kontratua betetzat joko da kontratistak, kontratuaren baldintzen arabera eta Administrazioak adierazitako moduan, kontratuaren xede osoa bete duenean.

2.- Obra amaitu eta hurrengo hilabetearen barruan, obraren harrera egingo da, egintza formal bidez.

3.- Obrak egoera onean badaude eta aurreikusitako aginduak betetzen badira, administrazio kontratatzaileak izendatutako funtzionario teknikoak eta administrazio horren ordezkariak hartutzat joko ditu, eta dagokion akta egingo du lau aletan. Akta harreran parte hartzen dutenek sinatu beharko dute, eta Administrazioa ordezkatzen duen funtzionario teknikoari ale bat emango zaio, zuzendaritza teknikoari beste bat, eta kontratistari beste bat. Orduan hasiko da berme-epea. Harrera-aktan, zuzendaritza fakultatiboak neurketa orokorra hasteko eguna ezarriko du, eta kontratista egintza horretarako jakinarazitzat joko da.

4.- Kontratistak obraren harrerara joateko betebeharra du. Egotz dakizkiokeen arrazoiengatik betebehar hori betetzen ez badu, Administrazioaren ordezkariak aktaren ale bat bidaliko dio, hamar eguneko epean egokitzat jotzen dituen alegazioak egin ditzan, eta kontratazio-organoak horiei buruzko ebazpena emango du.

5.- Obrak jasotzeko moduan ez badaude, hala jasoko da aktan, eta horien zuzendaritza fakultatiboak antzemandako akatsak adieraziko ditu eta beharrezko jarraibideak zehaztuko ditu, akats horiek konpontzeko epea zehaztuz. Epe hori igaro eta kontratistak ez badu epe hori bete, beste epe luzaezin bat eman ahal izango zaio, edo kontratua suntsiarazi, kontratistari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik.

55.- Recepción de la obra.

1.- El contrato se entenderá cumplido por el contratista, cuando éste haya realizado, de acuerdo con los términos del mismo, y a satisfacción de la Administración, la totalidad de su objeto.

2.- Dentro del mes siguiente a la finalización de la obra, se procederá, mediante acto formal, a la recepción de la misma.

3.- Si las obras se encuentran en buen estado y con arreglo a las prescripciones previstas, el funcionario técnico designado por la Administración contratante y representante de ésta, las dará por recibidas, levantándose la correspondiente acta por cuadruplicado, que deberá ser firmada por los concurrentes a la recepción, entregándose un ejemplar al funcionario técnico que represente a la Administración, otro a la dirección facultativa, y otro al contratista, comenzando entonces el plazo de garantía. En el acta de recepción la dirección facultativa fijará la fecha para el inicio de la medición general, quedando notificado el contratista para dicho acto.

4.- El contratista tiene obligación de asistir a la recepción de la obra. Si por causas que le sean imputables no cumple esta obligación, el representante de la Administración le remitirá un ejemplar del acta para que, en el plazo de diez días, formule las alegaciones que considere oportunas, sobre las que resolverá el órgano de contratación.

5.- Cuando las obras no se hallen en estado de ser recibidas, se hará constar así en el acta, y la dirección facultativa de las mismas señalará los defectos observados y detallará las instrucciones precisas fijando un plazo para remediar aquellos. Si transcurrido dicho plazo el contratista no lo hubiese efectuado, podrá concedérsele otro plazo improrrogable o declarar resuelto el contrato, por causas imputables al contratista.

ESKUca853639-4f2e-4a79-96ca-ea0cc4834a1b

56.- Neurketa orokorra eta azken ziurtapena

1.- Obren harrera egin ondoren, neurketa orokorra egingo da kontratista bertan egonik, eta harrera egiten denetik hilabeteko epean zuzendaritza fakultatiboak proiektuaren arabera egiaz gauzatutakoen neurketa egingo du. Harrera egin eta 3 hilabeteko epearen barnean, kontratazio organoak gauzatutako obren azken ziurtapena onartu beharko du, hala badagokio, eta kontratistari ordainduko zaio kontratuko likidazioaren kontura, SPKLaren 198.4. artikuluan aurreikusitako epean.

2.- Hamabi milioi eurotik gorako balio zenbatetsia duten obren kasuan eta likidazio- eta neurketa-eragiketak bereziki konplexuak direnean, azken ziurtapena onartzeko hiru hilabeteko epea luzatzeko aukera aurreikusi ahal izango da pleguetan, betiere, kasu guztietan, bost hilabeteko epea gainditzen ez bada, SPKLaren 243.1. artikuluko azken lerroaldean xedatutakoarekin bat etorriz. Azken ziurtapena onartzeko epea karatulako **30. atalean** arautzen da.

56.- Medición general y certificación final

1.- Recibidas las obras, se procederá seguidamente a su medición general con asistencia del contratista, formulándose por la dirección facultativa, en el plazo de un mes desde la recepción, la medición de las realmente ejecutadas de acuerdo con el proyecto. Dentro del plazo de 3 meses, contados a partir de la recepción, el órgano de contratación deberá aprobar la certificación final de las obras ejecutadas, que, en su caso, será abonada al contratista a cuenta de la liquidación del contrato en el plazo previsto en el artículo 198.4 LCSP.

2.- En el caso de obras cuyo valor estimado supere los doce millones de euros en las que las operaciones de liquidación y medición fueran especialmente complejas, los pliegos podrán prever que el plazo de tres meses para la aprobación de la certificación final podrá ser ampliado, siempre que no supere en ningún caso los cinco meses, de conformidad con lo dispuesto en el último párrafo del artículo 243.1 LCSP. El plazo para aprobar la certificación final se encuentra regulado en el **apartado 30** de la carátula.

57.- Berme-epea eta likidazioa

1.- Berme-epea jasotzen denetik hasiko da kontatzen, eta karatulako **16. atalean** adierazitakoa izango da. Berme-epeko kontserbazio- eta zaintza-gastuak kontratistaren kontura izango dira.

2.- Epe horretan, behin betiko bermeak SPKLren 110. artikuluan adierazitako kontzeptuei erantzungo die.

3.- Epe horretan, kontratistak obrak kontserbatzeko eta zaintzeko lanak egingo ditu, betiere, proiektuaren baldintza tekniko berezien pleguan aurreikusitakoaren eta obraren zuzendaritzak emandako jarraibideen arabera. Administrazioaren iritzi kontratistak obra kontserbatzeko lanak egiten ez baditu eta obra arriskuan jartzen badu, Administrazioak kontratistaren kontura egingo ditu kaltea saihesteko beharrezkoak diren lanak.

4.- Harrera partzialak badaude, jasotako alderdien berme-epea kasuan kasuko harrera partzialen datetatik aurrera hasiko da zenbatzen.

5.- Berme-epea bete baino hamabost egun lehenago, zuzendaritza fakultatiboak, ofizioz edo kontratistak eskatuta, obren egoerari buruzko txostena idatziko du. Txostena aldekoa bada, kontratistak ez du inolako erantzukizunik izango, SPKLren 244. artikuluan xedatutakoa izan ezik. Kasu horretan, bermea itzuli edo ezereztu egingo da, kontratua likidatuko da, eta, hala badagokio, ordaintzeko dauden betebeharrak

57.- Plazo de garantía y liquidación

1.- El plazo de garantía comenzará a contar desde la fecha de la recepción y será el indicado en el **apartado 16** de la carátula. Los gastos de conservación y vigilancia durante el plazo de garantía serán a cargo del contratista.

2.- Durante dicho plazo la garantía definitiva responderá de los conceptos señalados en el artículo 110 LCSP que resulten de aplicación.

3.- Durante dicho plazo cuidará el contratista, en todo caso, de la conservación y policía de las obras con arreglo a lo previsto en el pliego de prescripciones técnicas particulares del proyecto y a las instrucciones que dicte la dirección de la obra. Si, a juicio de la Administración, descuidase la conservación y diere lugar a que peligre la obra, se ejecutarán por ella misma y a costa del contratista los trabajos necesarios para evitar el daño.

4.- En el supuesto de que hubiere recepciones parciales, el plazo de garantía de las partes recibidas comenzará a contarse desde las fechas de las respectivas recepciones parciales.

5.- Dentro del plazo de quince días anteriores al cumplimiento del plazo de garantía, la dirección facultativa, de oficio o a instancia del contratista, redactará un informe sobre el estado de las obras. Si este fuere favorable, el contratista quedará relevado de toda responsabilidad, salvo lo dispuesto en el artículo 244 de la LCSP, procediéndose a la devolución o cancelación de la garantía, a la liquidación del contrato

ESKUca853639-4f2e-4a79-96ca-ea0cc4834a1b

ordainduko dira, 60 eguneko epean. Txostena aldekoa ez bada eta antzemandako akatsak obrak gauzatzean izandako akatsengatik gertatu badira −eta ez eraikitakoa erabiltzeagatik−, zuzendaritza fakultatiboak, berme-epean zehar, behar diren jarraibideak emango dizkio kontratistari, eraikitakoa behar bezala konpon dezan. Horretarako, epe bat emango dio, eta, epe horretan, obra kontserbatzeaz arduratzen jarraitu beharko du, berme-epea luzatzeagatik inolako kopururik jasotzeko eskubiderik gabe.

6.- Edozein kasutan, berme-epe hori igaro ostean, txostena aldekoa balitz edo, bestela, eraikitakoa konpondu ostean, egiaz gauzatutakoen likidazioaren proposamena egingo du zuzendaritza fakultatiboak hilabeteko epean, eta kontratistari jakinaraziko zaio hamar eguneko epean bere adostasuna ager dezan edo egokitzat jotzen dituen erreparoak azal ditzan. Kontratistak erantzuten duenetik edo horretarako ezarritako epea amaitzen denetik bi hilabeteko epean, kontratazio-organoak likidazioa onartu eta, hala badagokio, likidazioaren ondoriozko saldoa ordaindu beharko du.

7.- Espedientean behar bezala arrazoitutako interes publikoko salbuespenezko arrazoiengatik kontratazio-organoak obra benetan okupatzea edo erabilera publikorako martxan jartzea erabakitzen badu, nahiz eta harrera-egintza formala bete ez, inguruabar horiek gertatzen direnetik aurrera obra hartzeko egintzaren berezko ondorioak gertatuko dira, HAKLEOren 168. artikuluan ezarritakoaren arabera.

y en su caso, al pago de las obligaciones pendientes, que deberán efectuarse en el plazo de 60 días. Si el informe no fuese favorable y los defectos observados se debieran a deficiencias en la ejecución de las obras y no al uso de lo construido, durante el plazo de garantía la dirección facultativa procederá a dictar las oportunas instrucciones al contratista para la debida reparación de lo construido, concediéndole un plazo para ello durante el cual continuará encargado de la conservación de la obra, sin derecho a percibir cantidad alguna por ampliación del plazo de garantía.

6.- En todo caso, transcurrido el plazo de garantía, si el informe fuese favorable o, en caso contrario, una vez reparado lo construido, se formulará por la dirección facultativa y en el plazo de un mes la propuesta de liquidación de las realmente ejecutadas, notificándose al contratista para que en el plazo de diez días preste su conformidad o manifieste los reparos que estime oportunos. En el plazo de dos meses, contados a partir de la contestación del contratista o del transcurso del plazo establecido para tal fin, el órgano de contratación deberá aprobar la liquidación y abonar, en su caso, el saldo resultante de la misma.

7.- Siempre que por razones excepcionales de interés público debidamente motivadas en el expediente el órgano de contratación acuerde la ocupación efectiva de la obra o su puesta en servicio para el uso público, aún sin el cumplimiento del acto formal de recepción, desde que concurran dichas circunstancias se producirán los efectos y consecuencias propios del acto de recepción de la obra en los términos establecidos en el artículo 168 del RGLCAP.

ESKUca853639-4f2e-4a79-96ca-ea0cc4834a1b

58.- Ezkutuko akatsen gaineko erantzukizuna

1.- Kontratistak kontratua betetzen ez badu, eta berme-epea amaitu ondoren, eraikuntzaren ezkutuko akatsengatik obra hondatzen bada edo bere eginkizunarekin bateraezinak diren narriadura larriak gertatzen badira, kontratistak izango du sortutako kalte-galeren erantzukizuna, obraren harrera egiten denetik hamabost urteko epean.

2.- Halaber, kontratista izango da epe horretan zehar zimentazio, euskarri, habe, forjatu, eustorma edo egiturazko beste elementu batzuetan eragindako eta eraikuntzaren erresistentzia mekanikoa eta eginkortasuna arrisku zuzenean jartzen duten akats edo gabezien ondorioz obran sortutako kalte materialen erantzulea, obraren harrera erreserbarik gabe egiten den egunetik edo egindako erreserbak konpontzen direnetik aurrera.

3.- Akatsen edo akatsen ondoriozko kalte materialengatik aurreko paragrafoan aurreikusitako erantzukizuna

58.- Responsabilidad por vicios ocultos

1.- Si la obra se arruinara o sufre deterioros graves incompatibles con su función con posterioridad a la expiración del plazo de garantía, por vicios ocultos de la construcción, debido a incumplimiento del contrato por parte del contratista, responderá éste de los daños y perjuicios que se produzcan o se manifiesten durante un plazo de quince años a contar desde la recepción.

2.- Asimismo, el contratista responderá durante dicho plazo de los daños materiales causados en la obra por vicios o defectos que afecten a la cimentación, los soportes, las vigas, los forjados, los muros de carga u otros elementos estructurales, y que comprometan directamente la resistencia mecánica y la estabilidad de la construcción, contados desde la fecha de recepción de la obra sin reservas o desde la subsanación de éstas.

3.- Las acciones para exigir la responsabilidad prevista en el apartado anterior por daños materiales dimanantes

eskatzeko akzioak bi urteko epean preskribatuko dira, kalte horiek gertatzen edo agertzen direnetik kontatzen hasita, hargatik eragotzi gabe kontratua ez betetzeagatik erantzukizunak eskatzeko erabil daitezkeen akzioak.

4.- Epe hori amaitutakoan kalte edo galerarik izan ez bada, kontratistaren erantzukizuna guztiz azkenduko da.

de los vicios o defectos, prescribirán en el plazo de dos años a contar desde que se produzcan o se manifiesten dichos daños, sin perjuicio de las acciones que puedan subsistir para exigir responsabilidades por incumplimiento contractual.

4.- Transcurrido este plazo sin que se haya manifestado ningún daño o perjuicio, quedará totalmente extinguida la responsabilidad del contratista.

59.- Kontratua suntsiaraztea

1.- Kontratua suntsitzeko arrazoi izango da, SPKLaren 211. eta 245. artikuluetan ezarritakoez gain, SPKLn adierazitako funtsezko betebeharrak eta karatulako 20. atalean kontratuzko funtsezko betebehar modura adierazten direnak ez betetzea.

2.- SPKLren 211.2 artikuluarekin bat etorriz, kontratua suntsiarazteko arrazoi bat baino gehiago baldin badago eta ondorio ekonomiko desberdinak baldin baditu kontratua azkentzeak, denboran lehentasunez agertu denari erreparatu beharko zaio.

3.- Kontratazio-organoak erabakiko du kontratua suntsiaraztea, SPKLren 212.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, erregelamenduz ezarritako moduan izapidetutako prozeduraren bidez.

4.- Kontratua kontratistaren ez-betetze errudunagatik suntsiarazten bada, bermea konfiskatu egingo zaio, eta, gainera, administrazioari kalte-ordaina eman beharko dio, konfiskatutako bermearen zenbatekotik gorako kalte-galerengatik. Kontratistak ordaindu behar dituen kalte-galerak kontratazio-organoak zehaztuko ditu, erabaki arrazoitua hartuta, aldez aurretik kontratistari entzunda. Horretarako, kontuan hartuko dira, besteak beste, proiektatutako inbertsioari eragiten dion atzerapena eta Administrazioari eragiten dizkion gastu handiagoak.

5.- Kontratua suntsiarazteko arrazoiak aplikatzeko, SPKLren 212. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio, eta, horren ondorioetarako, SPKLren 213. eta 246. artikuluetan xedatutakoari, eta, hala badagokio, erregelamendu bidezko garapenean xedatutakoari.

6.- Kontratua suntsiarazteko arrazoiak izan daitezke, halaber, honako hauek:

a).- Kontratua gauzatu bitartean, kontratistak kontratuari atxikitako langileei soldatak ez ordaintzea, edo langile horientzat indarrean dauden lan hitzarmenetan ezarritako baldintzak ez betetzea.

Arrazoi horrengatiko suntsiarazpena, oro har, enpresa kontratistako langileen ordezkaritzak eskatuta erabakiko da; salbu eta soldatak ez

59.- Resolución del contrato

1.- Serán causa de resolución del contrato, además de las establecidas en los artículos 211 y 245 de la LCSP, el incumplimiento de las obligaciones esenciales indicadas en la LCSP y de las señaladas en el apartado 20 de la carátula como obligaciones esenciales del contrato.

2.- De conformidad con el artículo 211.2 LCSP, en los casos en que concurran diversas causas de resolución del contrato con diferentes efectos en cuanto a las consecuencias económicas de la extinción, deberá atenderse a la que haya aparecido con prioridad en el tiempo.

3.- La resolución del contrato se acordará por el órgano de contratación de conformidad con lo dispuesto en el artículo 212.1 LCSP mediante procedimiento tramitado en la forma reglamentariamente establecida.

4.- Cuando el contrato se resuelva por incumplimiento culpable del contratista le será incautada la garantía y deberá, además, indemnizar a la Administración los daños y perjuicios ocasionados en lo que excedan del importe de la garantía incautada. La determinación de los daños y perjuicios que deba indemnizar el contratista se llevará a cabo por el órgano de contratación en decisión motivada previa audiencia del mismo, atendiendo, entre otros factores, al retraso que implique para la inversión proyectada y a los mayores gastos que ocasione a la Administración.

5.- Para la aplicación de las causas de resolución se estará a lo dispuesto en el artículo 212 de la LCSP y para sus efectos a lo dispuesto en los artículos 213 y 246 de la LCSP, así como en su caso, a lo dispuesto en el desarrollo reglamentario.

6.- También podrá ser resuelto el contrato por las siguientes causas:

a).- Por el impago durante la ejecución del contrato, de los salarios por parte de la contratista al personal adscrito al contrato, o el incumplimiento de las condiciones establecidas en los convenios colectivos en vigor para este personal.

La resolución por esta causa se acordará, con carácter general, a instancia de la representación del personal en la empresa contratista; excepto

ESKUca853639-4f2e-4a79-96ca-ea0cc4834a1b

ordaintzeak eragindako langileen kasuan subrogazioa bidezkoa denean, SPKLren 130. artikuluaren arabera, eta enpresa kontratistak zor dituen soldaten zenbatekoa kontratuaren esleipen-prezioaren ehuneko 5 baino handiagoa denean; kasu horretan, suntsiarazpena ofizioz erabaki ahal izango du kontratazio-organoak zuzenean.

b).- Baldintza-agiri honen arabera, laneko segurtasun eta osasun arloko oso ez-betetze larria gertatzea.

7.- Aldi baterako enpresa-elkarteen kasuan, elkartekideetakoren bat SPKLren 211.1 artikuluko a) eta b) letretan jaso balizkoan sartzen denean Administrazioak ahalmena izango du aldi baterako elkartea osatzen duten beste enpresei kontratuko obligazioak betetzea eskatzeko edo kontratua suntsiaraztea erabakitzeko.

8.- Hala ere, ez-betetzeengatiko zehapenak kontratuko prezioaren % 5aren multiploa direnean, kontratazio-organoak kontratua suntsitzea edo, zehapen berriak ezarriz, kontratuak jarraitzea erabaki ahal izango du.

cuando el personal afectado por el impago de salarios sea personal en los que procediera la subrogación de conformidad con el artículo 130 de la LCSP y el importe de los salarios adeudados por la empresa contratista supere el 5 por ciento del precio de adjudicación del contrato, en cuyo caso la resolución podrá ser acordada directamente por el órgano de contratación de oficio.

b).- Por incumplimiento de carácter muy grave conforme al presente pliego de las obligaciones en materia de seguridad y salud en el trabajo.

7.- En el supuesto de Uniones Temporales de Empresas, cuando alguna de las integrantes se encuentre comprendida en el supuesto del artículo 211.1 a) y b) de la LCSP la Administración estará facultada para exigir el cumplimiento de las obligaciones contractuales al resto de las empresas que constituyan la unión temporal o acordar la resolución del contrato.

8.- No obstante, cuando las penalidades por incumplimientos alcancen un múltiplo del 5 por 100 del precio del contrato, el órgano de contratación estará facultado para proceder a la resolución del mismo o a acordar la continuidad de su ejecución con imposición de nuevas penalidades.

60.- Obrak ondare eta eskubideen inbentario nagusian sartzea

Inbentariatu daitezkeen obrak −eta, hala badagokio, hobekuntzakoak− ondasunen eta eskubideen inbentario orokorrean sartzeko, enpresa kontratistak, obraren harrera egiteko unean, egindako obraren dimentsioen eta ezaugarrien egoera deskribatzen duen dokumentazioa emango dio obraren zuzendaritzari. Dokumentazio horretan, zehatz-mehatz zehaztu beharko dira egindako obrak, obraren harrera egiteko unean dauden bezala.

60.- Incorporación de las obras al inventario general de bienes y derechos

A los efectos de su incorporación al inventario general de bienes y derechos de las obras de carácter inventariable y, en su caso, de las de mejora, la empresa contratista en el acto de recepción de la obra entregará a la Dirección de la obra la documentación descriptiva del estado de dimensiones y características de la obra ejecutada que defina con detalle las obras realizadas tal como se encuentran en el momento de la recepción.

61.- Kontraesan kasuak

Proiektua osatzen duten dokumentuen eta berariazko klausula administratiboen pleguaren artean kontraesanik badago zehaztapen ekonomiko-administratiboei dagokienez, baldintza-agiri honetan jasotako klausulak izango dira nagusi.

61.- Supuestos de contradicciones

De existir contradicciones, en cuanto a las determinaciones económico-administrativas, entre los documentos que integran el Proyecto y el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares, prevalecerán las cláusulas contenidas en el presente pliego.

Eginbidea: Nik, Idazkariak, egiten dudana aditzera emateko Baldintza Teknikoen Agiri hau **Tokiko Gobernu Batzarrak** onartu duela, Alkatetzak eskuordeturik, **2026/10/30ean** egindako bilkuran hartutako erabaki bidez.

Idazkaria

Diligencia: Que la extiendo yo, el Secretario de la Corporación, para hacer constar que el presente pliego de Condiciones Técnicas ha sido aprobado mediante acuerdo de **la Junta de Gobierno Local**, por delegación de Alcaldía, de fecha **30/10/2026.**

El Secretario

ESKUca853639-4f2e-4a79-96ca-ea0cc4834a1b

ESKUca853639-4f2e-4a79-96ca-ea0cc4834a1b

I. ERANSKINA

LIZITAZIO ELEKTRONIKORAKO JARRAIBIDEAK

I.- LIZITAZIO ELEKTRONIKORAKO SISTEMA.

1.- Kontratazio prozeduretako izapideetarako (dokumentuak bidali, kontratuak sinatu, jakinarazpenak jaso…) lizitazio elektronikorako sistema erabiltzeko baldintzak.

1.1.- **Baldintza administratiboak:**

a).- Ziurtagiri digital bat izatea, Andoaingo Udalak izapide elektronikoetarako baimendutako erabilera duena. Gaur egun, honako hauek dira ziurtagiri elektroniko horiek:
- Izenpe (entitatea, herritarra, entitatearen ordezkaria).
- FMNT (entitatea, herritarra, entitatearen ordezkaria).
- Nortasun agiri nazional elektronikoa
- Camerfirma (entitatea, herritarra)

b).- Egoera hauetako batean egotea:
- Alta emanda egotea eta indarrean dagoen ziurtagiria izatea Euskadiko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan.
- Alta emanda egotea lizitazio elektronikorako aldi baterako gaikuntzako sisteman.
- Bi operadore ekonomiko edo gehiago elkarrekin aurkezten badira, formalki aldi baterako enpresa-elkarte gisa (ABEE) eratzeko konpromisoa hartuta, ABEEaren konpromisoa aldi baterako gaikuntzako sisteman erregistratuta egon beharko da.

1.2.- **Baldintza teknikoak:**

Elektronikoki lizitatzeko baldintza teknikoei buruzko informazioa lotura honetan aurkitu daiteke:
http://www.contratacion.euskadi.eus/w32-content/eu/contenidos/informacion/licitar_electronicamente/eu_02/requisitos_tecnicos.html

1.3.- **Lizitazio elektronikoari buruzko zalantzak edo gorabeherak argitzeko zerbitzua: 945 016298.**

2.- Lizitazio elektronikoko sistemara sartzeko modua:

Sistema erabili ahal izateko, atari honetan sartu beharko da: www.contratacion.euskadi.eus

II.- JAKINARAZPEN ETA KOMUNIKAZIO ELEKTRONIKOAK.

